

IRAKURKETA PLANA

AURKIBIDEA

Laburpena.....	2
Justifikazioa.....	2
Helburuak.....	4
Denboralizazioa.....	6
Partaideak.....	7
Erakunde laguntzaileak.....	7
Aurrekontua edo diru laguntzak ???.....	7
Ebaluazioa.....	8

IRAKURKETA PLANA

Laburpena

Jakina da irakurmena oinarrizko komunikazio-trebetasuna dela eta behar-beharrezkoa, eskolan helburu akademikoak erdiesteko eta gizartean garapen osoa lortzeko.

Alde horretatik, irakurketa planaren helburu nagusia, oro har, ikasleen irakurmena hobetzea eta ikasleengan irakurzaletasuna sustatzea da.

Hala, geure Irakurketa Plana diseinatu dugu, Hernani BHI'n irakurketaren garapena eta sistematizazioa egituratzeko xedez, beti ere Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuari atxikita eta bertan jasota dauden ardatzekin bat etorriz. Irakurketa plana dokumentu irekia da, aldatu eta berregokitu daitekeena, klaustro osoaren inplikazioa eskatzen duena.

Gure ikastetxean irakurketaren garapena sustatzeko ikasleek eskura dituzte institutuko bi liburutegietako baliabideak ere, baita bertan antolatzen diren tertulia, aurkezpen, errezitaldi eta abarrez gozatzeko aukera ere.

Justifikazioa

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 2018an laguntza eta babes baliabide multzo bat jarri zuen hezkuntza komunitatearen eskura, horren helburua gure ikasleen irakurmena hobetzea eta irakurzaletasuna bultzatzea izanik. Testuinguru horretan, ikastetxe orok bezala, guk ere geure irakurketa plana sortzeari ekin genion eta xede horri erantzuteko beharrezko jo ziren ekimenen plangintza egin genuen.

Azken urteotan ikasleen irakurmenean nabarmendu diren gabeziek bultzata, Hezkuntza Sailak 77/2023 eta 76/2023 Dekretuen bidez finkatutako marko berrian, Oinarrizko Hezkuntzaren printzipio pedagogikoen artean irakurketaren lanketaren garrantzia zehatz-mehatz jaso du. Hala, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak zehazten duen 77/2023 Dekretuaren 6.5 artikulua honela dio:

Irakurketa ohitura sustatze aldera, ikasgai guztien irakaskuntzan denbora hartu behar da era bateko eta besteko testu motak irakurtzea dakarten jardueretarako.

Halaber, Batxilergoko curriculum zehazten duen 76/2023 Dekretuaren 6.6 artikulua honako hau jasotzen du:

Behar diren neurriak bultzatu behar dira irakurtzeko interesa eta ohitura eta jendaurrean behar bezala hitz egiteko gaitasuna sustatzen dituzten jarduerak baliatzeko ikasgaietan.

Irakurtzeko konpetentzia arlo guztietan landu beharreko trebezia da, beraz, eta jakintzagai guztiak ikasteko behar-beharrezko tresna.

Ildo horretatik, eta euskal curriculumaren marko berriari atxikita, Hezkuntza Sailak 2024-2027 epealdirako Euskal Hezkuntza Sistemarako Irakurketa Estrategia jarri du hezkuntza komunitatearen eskura.

Irakurketaren garrantziaz jakitun izanik, Hernani BHIk irakurketa sustatzeko konpromezuarekin aurrera dihardu. Izan ere, irakurtzeak hezi egiten du, hausnarketa, analisia eta kontzentrazio ohiturak sustatzen ditu eta, aldi berean, gozamen eta aisi iturri da.

Ikerketek erakutsi dute irakurketa lantzeak ahozko eta idatzizko espresioa hobetzen duela, hiztegia zabaltzen eta gramatika eta ortografia hobetzen laguntzen baitu. Eta horrek guztiak gure eguneroko harremanak eta lanerako aukerak hobetu egiten ditu, hau da, garapen pertsonalean eta sozialean eragin positiboa dute.

Bestetik, informazioa lortzeko eta ezagutza eraikitzeko beharrezko tresna izateaz gain, ikasleen gaitasun kognitiboak garatzen eta eskola-errendimendua hobetzen laguntzen du, kontzentrazioa eskatzen duen jarduera baita eta jarduera hori ohitura bihurtzeak kontzentrazio gaitasun orokorra areagotzen baitu.

Azkenik, gaur egungo munduaren aniztasunaz jabetzeko oso tresna baliagarria da, kultura eta giza-esperientzia ezberdinei buruzko informazioa eskuratzeko bidea ere

bai baita. Hala, errealitate ezberdinei buruz jakitun izateak ideia irekitasuna, analisia eta kritika galtasuna bultzatzen du ikasleengan.

Gure ikasleak heldutan pertsona kritiko eta konprometituak izatea bultzatu nahi dugu eta horretarako irakurketa bultzatzea ezinbesteko jotzen dugu.

Hori guztia dela eta, Hernani BHI, aldi berri horretarako Irakurketa estrategia diseinatzeari ekin diogu irakurketaren lanketan gaur egun ditugun erronka berriei aurre egiteko. Estrategia horrek ikastetxean irakurketaren tratamendua antolatzea eta artikulatzea du helburu, ikasleen irakurtzeko konpetentzia garatzeko jarduera koordinatu eta planifikatua bultzatzea.

Helburuak

Irakurketa Planak honako helburuak ditu:

1. Irakurtzeko konpetentziaren garapena sustatzea.
2. Ikasleengan irakurtzeko interesa piztea, areagotzea eta sendotzea, irakurketa norberaren gozamen iturri gisa aintzat har dezaten.
3. Curriculumaren arlo guztietatik estrategiak ematea eta indartzea, ikasleek irakurketarako eta komunikaziorako trebetasunak gara ditzaten.
4. Ikasleek, hainbat euskarritan, tipologia askotariko testuak irakurtzeko, interpretatzeko eta informazio garrantzitsua bereizteko teknikak eta estrategiak ikastea.
5. Ikastetxeko liburutegiak, ikaskuntzarako eta irakurketaz gozatzeko benetako euskarri ezberdinetako baliabide-zentro bihurtzea.
6. Hezkuntza-komunitate osoaren inplikazioa lortzea irakurtzeko ohitura eta zaletasunaren mesedetan.

Ikasleek irakurtzeko eta irakurritakoa ulertzeko behar dituzten trebetasun eta ezagutzak eskuratzeko eskuhartze sistematikoa behar da ikasgelan. Ikasleak Oinarrizko Hezkuntzako etapara heltzen direnean irakurtzeko gaitasuna garatuta izan ohi badute ere, horretarako trebetasunak lantzen jarraitzea ezinbestekoa da. Hala, etapa horretan Irakurketa Estrategiaren helburuak bi ardatzen inguruan egituratzen dira:

1. IKASTEKO IRAKURRI

A. Hiztegia

Irakurketak lexikoaren hedapenean laguntzen du, eta horrek ikaslearen ezagutza handitzen eta hizkuntza trebetasunak hobetzen ditu.

B. Irakurmena edo irakurriaren ulermena

Irakurmena prozesu konplexua da, prozesu lexiko, sintaktiko eta semantikoen konbinazioa baita, testuan transmititutako ezagutzak barneratzea ahalbidetzen duena.

Ulermen estrategiak eta ulermen teknikak konbinatuz gero, eta testuak bereganatzeko banakako gaitasunarekin batera, ikaslearen ulermen-gaitasuna azkar eta nabarmen hobetuko da. Ulermen estrategia horiek lantzea izango da beraz xedea, entrenamendu-prozesuak bultzatzea, besteak beste, iragarpenak egitea, boz gora irakurtzea, hiztegia bidelagun izatea, atzera egin eta berriro irakurtzea, galderak egitea, testua laburtzea, azpimarratzea eta parafraseatzea...

C. Irakurketa eraginkorra

Irakurketa eraginkorrek azkar irakurtzea eta irakurtzen dena ulertzea esan nahi du. Horretarako hainbat teknika lantzea de helburua, besteak beste, begirada panoramikoa, azpimarratzea, kazetariaren teknika, kontzeptu-mapak.

2. IRAKURTZEKO OHITURA ETA IRAKURZALETASUNA

Irakurtzeko ohitura sortzea ikasleen heziketaren funtsezko alderdia izango da. Azken finean, garuna egunero irakurtzera ohitzen bada, abiadura irabazten da eta goian aipatu ditugun irakurketa-estrategia eta teknika guztiak hobetu egiten dira. Horrek denbora murriztea eta irakurmena handitzea ekarriko du. Ikaslea irakurle bihurtuko da motibazio intrinsekoagatik edota gozamen hutsagatik irakurtzen duenean, batez ere.

Irakurtzeko ohiturak irakurzaletasuna bermatzen ez badu ere, irakurzaletasuna ikastetxean, familiarekin eta ingurunearekin batera partekatutako helburu gisa proposatzea erabakiorra izango da, ikerketa askok berretsi baitute irakurzaletasuna, irakurtzeko konpetentzia eta emaitza akademikoak hobetzen dituen faktorea dela.

Halaber, irakurketa ingurune digital berrian txertatuta dago eta horrek aldaketak eragin ditu hezkuntzan, aisialdi-jardueretan eta abarrear. Eszenatoki berri horrek aisialdirako alternatiba berriak eta irakurketa jarrai eta kontzentraturako zailtasunak sortu ditu. Baina baliabide berri ugari ere eskaintzen ditu irakurketa sozializatzeko.

Esanak esan, irakurketa ludikoa gero eta gehiago jotzen da hezkuntza elementu estrategikotzat.

Garapena

Proiektuaren garapena zati ezberdinetan banatuko da. Aurtengo ikasturterako ekimen edo jardura konkreturik ez da planteatu, planifikazio lana egin da eta hurrengo ikasturtean egin nahi den ibilbidea zedarritu da. Ondorengo urratsak eman nahi dira:

1. Diagnosia

Lehenengo hiruhilekoan egingo da, irailan edo urrian. Ikasle eta irakasleei galdeketa eginez gauzatuko da diagnosia eta lortutako informazioa baliatuz hainbat urras egingo dira. Hortaz, diagnosia izango da proiektuaren garapenaren abiapuntua.

2. Liburutegia

Lehenengo hiruhilekoan Agustin Iturriagako liburutegiko espazioa hornitzen bukatuko dugu (falta diren apalak jarri eta abar).

SBko aretoa erabilera anitzeko espazio bihurtzeko diseinua landuko da eta irakurzaletasuna sustatzeko hainbat espazio egokituko dira. Funtzionamendurako arauak zehaztuko ditugu, era berean.

3. Testu bankua

Testu bankua osatuko da 1 DBHrako. Hirugarren hiruhilekorako prest edukitzea nahi da. Urtez urte DBHko maila guztietarako testu bankua osatzea aurreikusten da.

4. Irakurzaletasuna

-Irakurzaletasuna sustatzeko hainbat ekimen bultzatuko dira ikastetxeko liburutegiaz baliatuz. Horien plangintza urrian egingo da.

Halaber, Hernaniko Udalak antolatutako eta irakurketarekin eta irakurzaletasunarekin lotutako hainbat ekitalditara bisitak antolatuko dira.

-2025-2026 ikasturtean egingo diren guraso bilerak baliatuz, irakurketaren garrantzia azpimarratu nahi da. Familien inplikazioaren garrantzia ezinbestekoa da irakurzaletasuna sustatzeko eta familiak horren jakitun izatea da xedea.

Denboralizazioa

Euskal Hezkuntza Sistemarako Irakurketa Estrategiak lau urteko ibilbidea planteatzen du, 2024-2027 aldirako, hain zuzen. Gure ikastetxean proiektuaren garapena eta inplementazioa fase ezberdinetan egingo dira. Hala, bi urteko aldia aurreikusi dugu aurtengoan eta, alde batetik, denboraldi horretarako planifikazioa egin dugu eta bestetik hurrengo ikasturterako finkatutako helburuak betetzeko ekintza eta jarduera jakinak finkatu ditugu.

2024-2025 Jarduerak	ira	urri	aza	ab	urt	ots	ma	api	mai	ek
Koordinazio bilerak			x			x				x
Proiektuaren idazketa										x

2025-2026 Jarduerak	ira	urri	aza	ab	urt	ots	ma	api	mai	ek
Diagnosia	x	x								
Liburutegiaren antolaketa			x	x						
Testu bankua				x	x	x	x	x	x	
Irakurzaletasuna				x	x	x				

Partaideak

- Irakurketa planaren arduraduna
- Zuzendaritza taldea. Erabakiorra da zuzendaritza taldearen inplikazioa, irakurmenaren lanketa hezkuntza proiektuaren ardatzen artean jasota gera dadin eta hortik abiatuta behar diren urratsak egin daitezen.
- Klaustro osoa. Esan gabe doa, irakasleen eskuhartzea erabakiorra dela, ikastetxe mailan hartutako erabakiak aurrera eramateko eta helburuak lortzeko .
- Irakurketa plana gauzatzeko oso garrantzitsua da familiak ere inplikatzeko, eta horiekin lanketa egitea aurreikusten da, era berean.

Erakunde laguntzaileak

Egungo Irakurketa Planean ere halaxe jasota dago eta uste dugu herriko eragileak ezinbestekoak direla ikastetxeko proiektua eta plana garatzeko.

Honako erakundeen laguntzen jasotzen dugu:

1. Hernaniko udal liburutegia. Hernaniko Udali liburutegiarekin eta Kultura sailarekin harremanetan jarraituko dugu, informazioa eta aholkuak partekatzeko eta jarduerak elkarlanean antolatzeko.
2. Kale Irakurketa taldea. Beren jardueren berri emango diegu klaustrokideei eta, batez ere, Batxilergoko ikasleei, Kale Irakurketa Taldeak antolatzen dituen ekintzetan parte har dezaten.
3. Hezkuntza Saileko Berritzeguneak edo EHU-k ikastetxean irakurketa lantzeko proposatzen dituen irakasleen prestakuntzan, mintegietan edo antolatzen dituzten hitzaldi edo jardunaldietan ere parte hartzea beharrezkotzat jotzen dugu eskolaz kanpoko adituen aholkuak, kanpoko beste eskoletako esperientziak edo marko teorikoa ezagutzeko eta, egoki jotzen badugu, gure ikastetxean inplementatzeko.

Aurrekontua edo diru laguntzak

Proiektu honetarako diru-laguntzarik ez du jasotzen ikastetxeak.

Ebaluazioa

Helburua	Noiz ebaluatu	Nola ebaluatu	Nork ebaluatu	Betetze maila	Hobetzeko proposamenak
2025-26 ikasturtean Irakurketa Plana lantzeko oinarriak aztertzea	2025/06/02	Koordinazio bileren bidez helburuak eta proiektuaren garapenerako lehen urratsak finkatu dira.	Beatarrak eta irakurketa-planaren arduraduna	Egina	-Dedikazio orduak esleitzea -Adostutako proposamenak eta ekimenak hezkuntza komunitate osoaren inplikazioarekin aurrera eramatea eta garatzea.